

12

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA¹

CIENCIA Y TECNOLOGÍA¹

Mikel Olazaran (*)

Beatriz Otero (**)

¹ Este trabajo ha sido realizado gracias al apoyo de la Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea (subvención a grupo de investigación 9/UPV/EHU 00018.323-15338/2003) y de Gipuzkoako Foru Aldundia – Diputación Foral de Gipuzkoa (proyecto «Análisis de la generación/transmisión/aplicación del conocimiento y know how en las pymes guipuzcoanas. Aplicación al sistema educativo vasco», 2006-2007).

¹ Lan hau Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzari esker egin da, 9/UPV/EHU 00018.323-15338/2003 ikerketa-taldeari dirulaguntza eman baitio. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere dirulaguntza eman du: «Gipuzkoako ETEetan ezagutza eta *know how* sortzearen/transmititzearen/aplikatzearen analisisa. Euskal irakaskuntza-sisteman aplikatzea, 2006-2007» proiektua.

(*) **Soziologia 1 Saileko irakaslea eta ILCLI institutuko ikerlaria da, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU).** Profesor en el Departamento de Sociología 1 e investigador en el Instituto ILCLI de la Universidad del País Vasco.

(**) **Ikerlaria da ILCLI institutuan, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU).** Investigadora en el Instituto ILCLI de la Universidad del País Vasco.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
 - 1.1. Investigación y desarrollo
 - 1.2. Innovación
2. PANORÁMICA GENERAL DEL SISTEMA
3. UNIVERSIDAD Y SECTOR PÚBLICO
4. TRANSFERENCIA DE TECNOLOGÍA
5. I+D E INNOVACIÓN EN LA EMPRESA
 - 5.1. Investigación y desarrollo
 - 5.2. Innovación
6. CONCLUSIONES
7. BIBLIOGRAFÍA

AURKIBIDEA

1. SARRERA
 - 1.1. Ikerketa eta garapena
 - 1.2. Berriztapena
2. SISTEMAREN IKUSPEGI OROKORRA
3. UNIBERTSITATEA ETA SEKTORE PUBLIKOA
4. TRANSFERENTZIA TEKNOLOGIKOA
5. I+G ETA BERRIZTAPENA ENPRESAN
 - 5.1. Ikerketa eta garapena
 - 5.2. Berriztapena
6. ONDORIOAK
7. BIBLIOGRAFIA

1. INTRODUCCIÓN

En este estudio se analizan las actividades de investigación científica y desarrollo tecnológico (I+D) de la C.A. de Euskadi, considerando el papel de los agentes que componen el sistema y sus relaciones, así como los efectos de las políticas públicas en este campo. Se dedica una atención especial a los agentes de la oferta científico-tecnológica: universidad y centros tecnológicos multisectoriales.

En primer lugar se presentan los conceptos básicos que se emplean en las estadísticas de actividades científico-tecnológicas: investigación básica, desarrollo tecnológico e innovación. Así mismo, se hacen algunas consideraciones sobre los modelos e ideas que subyacen a dichos conceptos (modelo lineal, modelo sistémico).

En el segundo apartado se ofrece una panorámica general del sistema de I+D de la C.A. de Euskadi y se revisan sus principales características: debilidad del sector público, existencia de una fuerte estructura de transferencia tecnológica privada y orientación industrial. Tras ello se analizan los distintos agentes que componen el sistema de I+D y las relaciones entre los mismos.

El apartado tercero analiza el sector de la investigación básica (principalmente enseñanza superior) en la C.A. de Euskadi: evolución por áreas, análisis de los fondos específicos y problemática de la política científica. Posteriormente, el apartado cuarto se dedica a la estructura privada de transferencia de tecnología (los centros tecnológicos multisectoriales), agente pivotal del sistema y principal producto de la política regional de I+D. Se aborda la problemática de las distintas fases del proceso de conocimiento, la relación con la empresa y la relación con la universidad. Tras ello, en el apartado quinto se consideran las actividades de I+D e innovación de las empresas. La I+D interna es uno de los componentes de la innovación, concepto más amplio que recoge los cambios significativos introducidos por las empresas en productos, procesos y organización. Finalmente, en el apartado sexto se extraen unas conclusiones sobre el sistema y los agentes de I+D de la C.A. de Euskadi.

1. SARRERA

Azterlan honetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketa zientifikoaren eta garapen teknologikoaren (I+G) jarduerak aztertzen dira. Ildo horri jarraiki, sistema osatzen duten eragileen zeregina eta elkarren arteko harremanak aztertzen dira, baita politika publikoek alorrean sortarazten dituzten ondorioak ere. Eskaintza zientifiko-teknologikoko eragileei (unibertsitateari eta sektore anitzetako zentro teknologikoei) arreta berezia eskaintzen zaie.

Lehenengo atalean jarduera zientifiko-teknologikoen estatistiketan erabiltzen diren oinarritzko kontzeptuak aurkezten dira: oinarritzko ikerketa, garapen teknologikoa eta berriztapena. Era berean, kontzeptu horien azpian dauden ereduak eta ideiei buruz (eredu lineala, eredu sistemikoa) zenbait gogeta egiten da.

Bigarren atalean Euskal Autonomia Erkidegoko I+Gren sistemari dagokionez ikuspegi orokorra eskaintzen da eta ezagutza nagusiak aztertzen dira: sektore publikoaren ahultasuna, transferentzia teknologiko pribatua egiteko egitura sendoa eta industri orientabidea. Ondoren, I+Gren sistema osatzen duten eragileak eta horien arteko harremanak lantzen dira.

Hirugarren atalean Euskal Autonomia Erkidegoan oinarritzko ikerketaren sektorea (nagusiki goi-mailako irakaskuntza) aztertzen da: eboluzioa alorren arabera, funts berezien analisia eta politika zientifikoaren problematika. Ondoren, laugarren atala teknologia transferitzeko egitura pribatua (sektore anitzeko zentro teknologikoak) aztertzeraz bideratuta dago, sistemaren eragile euskarria delako, baita I+Gren eskualdeko politikaren produktu nagusia ere. Honako gaiak lantzen dira: ezagutza-prozesuaren fase desberdinen problematika, erlazioa enpresarekin eta erlazioa unibertsitatearekin. Ondoren, bosgarren atalean I+Gko jarduerak eta enpresen berriztapena kontuan hartuko dira. Barneko I+G berriztapenaren osagaietako bat da. Ildo horri jarraiki, bigarrena kontzeptu zabalagoa da eta enpresek produktuetan, prozesuetan eta antolaketan izandako aldaketa esangarriak jasotzen ditu. Azkenik, seigarren atalean Euskal Autonomia Erkidegoko sistemari eta I+Gren eragileei buruz ondorioak ateratzen dira.

1.1. Investigación y desarrollo

Se entiende por investigación científica y desarrollo tecnológico (I+D) el conjunto de actividades creativas emprendidas de forma sistemática, a fin de aumentar el volumen de conocimientos científicos y técnicos, incluidos el conocimiento del hombre, la cultura y la sociedad, así como la utilización de los resultados de esta suma de conocimientos para conseguir nuevos dispositivos, productos, materiales o procesos.

La I+D engloba tres tipos de actividades: la investigación fundamental o básica, la investigación aplicada y el desarrollo tecnológico (Manual de Frascati OCDE 2002, EUSTAT, INE).

- a) *Investigación básica.* Consiste en trabajos originales, experimentales o teóricos, que se emprenden principalmente para obtener nuevos conocimientos sobre los fundamentos de los fenómenos y de los hechos observables, sin estar dirigida a una aplicación o utilización específica. La investigación básica analiza propiedades, estructuras y relaciones con el fin de formular y contrastar hipótesis, teorías o leyes. El hecho de no estar dirigida a una aplicación o utilización determinada es crucial en la investigación básica, ya que el realizador puede no conocer aplicaciones reales cuando hace la investigación. Los resultados de la investigación básica no se ponen normalmente a la venta, sino que generalmente se publican en revistas científicas o se difunden directamente entre organismos o personas interesadas. En ocasiones, la difusión de los resultados de la investigación básica puede ser considerada confidencial por motivos de seguridad.
- b) *Investigación aplicada.* También consiste en trabajos originales emprendidos con la finalidad de adquirir conocimientos científicos o técnicos nuevos. Sin embargo, está dirigida fundamentalmente hacia un objetivo práctico determinado. La investigación aplicada se emprende para determinar los posibles usos de la investigación básica, o para determinar nuevos métodos o formas de alcanzar objetivos específicos predeterminados. Este tipo de investigación implica la consideración de todos los conocimientos existentes y su profundización, en un intento de solucionar problemas específicos. Los resultados de la investigación aplicada se refieren, en primer lugar, a un único producto o número limitado de productos, operaciones, métodos o sistemas. Esta operación permite poner las ideas en forma operativa. Los conocimientos o las informaciones obtenidas de la investigación aplicada son frecuentemente patentados, aunque también pueden mantenerse en secreto.
- c) *Desarrollo tecnológico.* Consiste en trabajos sistemáticos fundamentados en los conocimientos existentes obtenidos por la investigación y/o la experiencia práctica, que se dirigen a la fabricación de nuevos materiales, productos o dispositivos; a establecer nuevos procesos, sistemas y servicios; o a la mejora sustancial de los ya existentes. Se incluye la realización de prototipos y de instalaciones piloto.

No se consideran I+D actividades como educación, formación u otras actividades industriales necesarias para el desarrollo y comercialización de nuevos productos y para la utilización comercial de procesos y equipos. También quedan excluidas actividades de información, recopilación de datos y prospección, ensayos y pruebas o estudios de normalización

1.1. Ikerketa eta garapena

Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa (I+G): ezagutza zientifikoen eta teknikoen bolumena gehitzeko, sistematikoki erabilitako sormen-jardueren multzoa da, gizakiaren ezagutza, kultura eta gizartea barne, baita ezagutza-baturaren emaitzak tresna berriak, produktuak, materialak edo prozesuak lortzeko erabiltzea ere.

I+Gren barruan hiru jardueramota sartzen dira: oinarrizko edo funtsezko ikerketa, ikerketa aplikatua eta garapen teknologikoa (Frascatiren OCDE 2002 Eskuliburua, EUSTAT, INE).

- a) *Oinarrizko ikerketa.* Jatorrizko lanak dira, bai esperimentalak, bai teorikoak eta fenomenoaren oinarriari nahiz ikus daitezkeen gertakariari buruz ezagutza berriak lortzeko egiten dira nagusiki. Ez dago aplikazio edo erabilera berezira bideratuta. Oinarrizko ikerketak propietateak, egiturak eta erlazioak aztertzen ditu hipotesiak, teoriak edo legeak formulatu eta egiaztatzeko. Aplikazio edo erabilera zehatzera bideratuta ez egotea, erabakigarria da oinarrizko ikerketan; egileak, agian, ikerketa egiten ari denean, ez baititu egiazko aplikazioak ezagutzen. Oinarrizko ikerketaren emaitzak ez dira saltzen. Hala, aldizkari zientifikoe-tan argitaratzen dira edo erakunde nahiz pertsona interesatuen artean zuzenean banatzen dira. Batzuetan, segurtasuneko arazoak direla-eta, oinarrizko ikerketaren emaitzak sekretupekoak izan daitezke.
- b) *Ikerketa aplikatua.* Halaber, jatorrizko lanak dira ezagutza zientifiko edo tekniko berriak lortzeko, baina helburu praktikoa zehatza izan ohi dute. Ikerketa aplikatua oinarrizko ikerketaren erabilerak zehazteko egiten da. Bestela, helburu berezi lehenetsiak lortzeko modu edo metodo berriak lortzeko garatzen dute. Ikerketa-mota honetan ezagutza guztiak kontuan hartu eta sakondu egin behar dira arazo berezietan konponbidea emateko asmoz. Ikerketa aplikatuaren emaitzek, lehenik eta behin, produktu bakarrean edo produktu-, eragiketa-, metodo- edo sistema-kopuru mugatua lortutakoa adierazten dute. Eragiketa honi esker ideiak operatibo bihurtzen dira. Sarritan, ikerketa aplikatuaren ondorioz lortutako ezagutzak edo informazioak patentatu egiten dira. Bestela, sekretupean gorde daitezke.
- c) *Garapen teknologikoa.* Lan sistematikoak dira eta ikerketaren edota esperientzia praktikorearen ondorioz lortutako ezagutzetan oinarritzen dira. Besteak beste, honako helburuak ditu: material, produktu edo tresna berriak fabrikatzea, prozesu, sistema eta zerbitzu berriak zehaztea edo jada daudenak nabarmenki hobetzea. Prototipoak eta instalazio pilotuak sartuta daude.

Ez dira I+G: produktu berriak garatu eta merkaturatzeko, baita prozesuak eta ekipoak merkaturatu erabiltzeko ere industri jarduerak, prestakuntza edo irakaskuntza. Halaber, baztertu egiten dira informazio-jarduerak, datuak biltzea eta prospekzioa, saiakuntzak eta probak edo normalizazio- eta bideragarritasun-ikerketak, I+Gren proiektuaren babesean egiten di-

y factibilidad, excepto cuando se realizan al servicio de un proyecto de I+D. El criterio básico que distingue las actividades I+D de otras actividades relacionadas, y que no se incluyen, es la presencia o ausencia de un grado apreciable de creatividad y la resolución de una incertidumbre científica y/o tecnológica; o, dicho de otra manera, cuando la solución de un problema no parezca evidente a cualquiera que esté al corriente del conjunto de conocimientos y técnicas básicas utilizadas comúnmente en el sector considerado.

Dentro de la noción operativa de sistema de ciencia y tecnología subyacente a las estadísticas de I+D, se habla de indicadores de inputs (recursos económicos y humanos) e indicadores de outputs (producción científica y tecnológica). Los indicadores básicos sobre inputs se derivan de dos variables: «gasto intramuros (bruto) en I+D» (que incluye los gastos de personal, otros gastos corrientes y gastos de capital que se derivan de las actividades I+D en los centros de investigación) y «personal dedicado a actividades I+D» (incluyendo científicos e investigadores, gerentes, administradores, técnicos y auxiliares de apoyo). A partir de estas variables, los indicadores estadísticos habituales reflejan medidas absolutas (gasto bruto en I+D o personal de I+D) y medidas relativas (gastos I+D sobre el PIB; gastos I+D per cápita; personal I+D sobre activos; tasa de investigadores sobre activos, etc.). Todas estas medidas pueden clasificarse y diferenciarse también según el tipo de gasto (corriente o de capital), según el origen de los fondos (públicos o privados), según dedicación del personal (en equivalencia de dedicación plena, EDP) y según sectores de ejecución (empresas, organismos públicos de investigación, enseñanza superior, instituciones privadas sin fines de lucro).

Es importante subrayar que, tanto por su definición como por las características de los procesos de obtención de la información, los indicadores de gasto y personal presentan no pocas dificultades de utilización e interpretación, toda vez que no se pueden recoger con toda la precisión y homogeneidad deseables. La aplicación estricta de estas definiciones exigirá conocer con un extraordinario grado de detalle el contenido y desarrollo de todas y cada una de las actividades susceptibles de calificarse como I+D. En la práctica, la recopilación de la información se realiza por las agencias estadísticas recurriendo a los centros de ejecución de la investigación. Por tanto, son los organismos ejecutores quienes aplican las definiciones a través de su organización y actividades y, en última instancia, quienes las reflejan en las estadísticas oficiales.

Respecto a los outputs, los indicadores más utilizados son los indicadores bibliométricos (producción científica) y las patentes y modelos de utilidad (producción tecnológica). Los indicadores de producción científica más utilizados se basan en el Science Citation Index (SCI), que cubre anualmente entre 3.000 y 4.000 revistas científicas ordenadas por su factor de impacto (número de citas que reciben) y relativas a más de 100 campos científicos englobados en las áreas UNESCO de agricultura, biología, ingeniería, ciencias médicas, física y química. Los indicadores bibliométricos se refieren a la cantidad y a la calidad de la producción. Ambos criterios están relacionados, ya que la idea básica es que la productividad de un investigador o conjunto de investigadores se mide por las publicaciones que realizan en las revistas científicas de mayor calidad. Con la información que el SCI consigna para cada documento (autor/es, idioma, fecha de publicación, centros de referencia de los autores, revista, clasificación temática, citas concretas), puede determinarse la cantidad de

ren kasuetan izan ezik. I+G jarduerak eta pareko besteak bereizten dituen oinarrizko irizpidea sormena eta ziurgabetasun zientifikoa edota teknologikoa ebaztea da, hau da, bi horien maila nabarmena izanez gero, I+Gren proiektuaren aurrean gaude; beste modu batera esanda, oinarrizko eza-gutzetan eta teknikan eguneratua dagoen pertsona batek arazoaren irtenbidea ez du argi eta garbi ikusten.

I+Gren estatistikaren azpian zientziaren eta teknologiaren sistemari dagokion nozio eraginkorraren barruan, input adierazleei (baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak) eta output adierazleei buruz (ekoizpen zientifikoa eta teknologikoa) hitz egiten da. Inputei buruzko oinarrizko adierazleak bi aldagaien ondorioz sortzen dira: «I+Gn egindako barruko gastua (gordina)» (I+G jardueretarako ikerketa-zentroan sortutako langileen gastuak, bestelako gastu arruntak eta kapital-gastuak barne) eta «I+Gn dabilzan langileen gastuak» (ikertzaileak eta zientifikoak, kudeatzaileak, administrariak, teknikariak eta laguntzaileak barne). Aldagai horietatik abiatuta, ohiko adierazle estatistikoek neurri absolutuak (I+Gn gastu gordina edo I+Gn langileak) eta neurri erlatiboak (BPGren gaineko I+G gastuak, biztanleko I+G gastuak, aktiboen gaineko I+Gko langileak, aktiboen gaineko ikertzaileen tasa, etab.) adierazten dituzte. Halaber, neurri horiek guztiak honakoen arabera sailka eta bereiz daitezke: gastu-mota (arrunta edo biztanleko), funtsen jatorria (publikoak edo pribatuak), langileen arduraldia (arduraldi osoarekiko baliokidea, AOB) eta gauzatze-sektoreak (enpresak, ikerketako organismo publikoak, goi-mailako irakaskuntza, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak).

Bai definizioarengatik, bai informazioa lortzeko prozesuen ezaugarriengatik, gastuaren eta langileen adierazleak erabili eta interpretatzeko orduan, zailak dira, nahi den zehaztasun eta homogeneotasunez ezin baitira bildu. Definizio horiek zehatz-mehatz aplikatzeko, zehaztasun handiz ezagutu behar litzateke I+Gzat jotzeko jarduera guztien edukia eta garapena. Praktikan informazioa estatistika-agentziek biltzen dute eta, horretarako, ikerketa egiten den zentroetara jotzen dute. Beraz, gauzatze-organismoek beren antolamendu eta jardueren bidez definizioak aplikatzen dituzte eta, azken finean, estatistika ofizialetan islatzen dituzte.

Outputei dagokienez, adierazlerik erabilienak bibliometrikoak (ekoizpen zientifikoa) eta patenteak eta erabilgarritasun ereduak (ekoizpen teknologikoa) dira. Ekoizpen zientifikoaren adierazlerik erabilienak *Science Citation Index* (SCI) izenekoan oinarritzen dira. Urtero 3.000 eta 4.000 aldizkari zientifiko hartzen ditu eta inpaktuaren faktorearen arabera, hau da, egindako aipamenen arabera antolatzen dira. UNESCO alorretan sartutako 100 eremu zientifiko baino gehiago aipatzen dituzte: nekazaritza, biologia, ingeniariaritza, zientzia medikoak, fisika eta kimika. Adierazle bibliometrikoek ekoizpenaren kantidadea eta kalitatea adierazten dute. Bi irizpideak elkarren artean erlazionatuta daude, oinarrizko ideia honakoa baita: ikertzailearen edo ikertzaile-multzoaren produktibitatea kalitate handien dituzten aldizkari zientifikoetan egindako argitalpenengatik neurtzen dela. SCI izenekoak dokumentu bakoitzari dagokionez eskaintzen duen informazioarekin (egilea/k, hizkuntza, argitalpen-data, egileen erreferentzi zentroak, aldizkaria, sailkapen tematikoa, aipamen zehatzak) edozein

producción científica de cualquier nivel geográfico y/o institucional, así como su evolución en el tiempo y por campos científicos. También pueden calcularse indicadores relativos de presencia, participación o especialización temática de la producción.

La contabilidad de patentes y modelos de utilidad implica una fuente de información singular, los registros de patentes que, aunque son documentos públicos, están legalmente protegidos. La influencia de los modos de registro, los cambios en las leyes (que afectan sobre todo a la medida en la UE) y la diversidad de clasificaciones nacionales sobre este tipo de productos hace muy complicada su utilización y relativiza enormemente su utilidad práctica a efectos comparativos espacio-temporales (Callon et al., 1993).

En las estadísticas e indicadores de I+D subyacen unas ideas y modelos sobre cómo funciona el proceso de innovación. La primera fase de la política científica dedicó un gran apoyo a la investigación básica. Los éxitos de la movilización de científicos en el periodo de la Segunda Guerra Mundial en EEUU dentro de programas de investigación de interés nacional a gran escala y multidisciplinares (radar, penicilina, bomba atómica, ordenador), y el posterior papel de algunos líderes de la comunidad científica en la formulación de la primera política científica tras la guerra, dieron un espaldarazo a este modelo (Bush, 1945; Dickson, 1988; Elzinga y Jamison, 1995).

Sin embargo, en los años 70 y 80, dentro de un contexto cambiante (crisis económica, inestabilidad social e internacional, surgimiento de nuevos competidores, auge del neoliberalismo), la política científica evolucionó hacia el establecimiento de prioridades y la presión a los científicos para que produjeran un conocimiento más aplicado, dirigido hacia las necesidades económicas. Frente al dominio de los intereses y la cultura académica (valores de autonomía, objetividad) en la primera fase, esta segunda se caracteriza por el creciente peso de los agentes y la cultura económica o empresarial (énfasis en los usos tecnológicos de la ciencia) (Elzinga y Jamison, 1995). El énfasis se traslada a la generación y difusión de tecnología, dentro de lo que podríamos denominar un «modelo lineal tecnológico» (Caracostas y Muldur, 1998, cap. 1).

1.2. Innovación

En los años 90 la atención giró hacia el concepto de innovación, entendido en un sentido amplio, donde la I+D es un elemento, pero no el único. Se considera que el concepto de I+D estricto no refleja la actividad innovadora de numerosas empresas (sobre todo pymes), que innovan con éxito con relativamente pocos recursos para I+D. Se pone en duda el modelo lineal, con su secuencialidad de fases (investigación; desarrollo; invención; innovación; difusión). La I+D no es tanto «la» fuente de las invenciones, sino una herramienta que se utiliza para resolver los problemas que aparezcan en cualquier fase del proceso. La empresa dispone de una base de conocimientos a la que acude para resolver los problemas que se le plantean al innovar (o acude a bases externas). La investigación aborda los problemas que no pueden resolverse con los conocimientos existentes, para así ampliar esa base de conocimientos.

En este sentido, el concepto de «estrategia tecnológica», o conjunto de objetivos comerciales que se propone alcanzar

maila geografikoren edota erakunde-mailaren ekoizpen zientifikoa zehatz daiteke, baita eboluzioa denboran eta alor zientifikoen arabera ere. Halaber, ekoizpenaren presentzia, partaidetza eta espezializazioari buruzko adierazleak kalkula daitezke.

Erabilgarritasunaren patenteak edo ereduak zenbatuz gero, informazio-iturri bitxia izango dugu. Patenteen erregistroak dokumentu publikoak izan arren, legez babestuak daude. Erregistroen moduen eraginak, legeetan aldaketek (batez ere EEn neurketan eragina dute) eta produktu-mota horiei buruz nazioko sailkapenen aniztasunak oso zaila egiten dute erabilera eta espazioan nahiz denboran alderatzeko erabilgarritasun praktikoa asko erlatibizatzen da (Callon et al., 1993).

I+Gren estatistiken eta adierazleen azpian berriztapen-prozesuaren funtzionamenduari buruzko ideiak eta ereduak daude. Politika zientifikoaren lehenengo fasean laguntza handia eskaini zitzaion oinarritzko ikerketari. Eredu hau asko bultzatu zuten bi faktorek: batetik, nazioaren intereserako ikerketa-programen barruan eskala handian eta alor anitzetan (radarra, penizilina, bomba atomikoa, ordenagailua) AEBn Munduko Bigarren Gudan zientzialariak mugitzeak; eta, bestetik, guda ostean lehenengo politika zientifikoa formulatzeko orduan, komunitate zientifikoaren zenbait buruzk izandako zereginak (Bush, 1945; Dickson, 1988; Elzinga eta Jamison, 1995).

Hala eta guztiz ere, 70. eta 80. hamarkadetan, testuinguru aldatokorraren barruan (krisi ekonomikoa, gizarte-ezegonkortasuna, nazioarteko ezegonkortasuna, lehiakide berriak sortzea, neoliberalismoaren gorakada), politika zientifikoak eboluzionatu egin zuen eta lehentasunak ezarri ziren; gainera, zientzialariei presionatu egin zitzaizen ezagutza aplikatua-koa ekoizteko, hain zuzen ere, behar ekonomikoetarantz bideratua. Lehenengo fasean kultura eta interes akademikoak (autonomiaren balioak, objektibotasuna) nagusi baziren, bigarren fasean geroz eta garrantzitsuagoak dira ekonomia eta enpresaren eragileak eta kultura (zientziaren erabilera teknologikoa nagusitzea) (Elzinga eta Jamison, 1995). Enfasia teknologiaren sorrera eta difusiora hedatzen da, «eredu lineal teknologikoa» izenekoaren barruan (Caracostas eta Muldur, 1998, 1. kap.).

1.2. Berriztapena

90. hamarkadan arreta berriztapenari jarri zitzaion. Bere zentzurik zabalenean, I+G elementu bat da, baina ez bakarra. Ildo horri jarraiki, I+Gren kontzeptu zorrotzak enpresa askoren (batez ere ETEn) jarduera berriztatzailea ez du kontuan hartzen. Horiek I+Gra baliabide gutxi bideratuta, arrakastaz berriztatzen dute. Eredu lineala fase-sekuentziarekin (ikerketa, garapena, asmaketa, berriztapena, hedapena) zalantzan jartzen da. I+G asmaketaren iturria baino gehiago prozesuaren edozein fasetan agertzen diren arazoak ebazteko tresna da. Enpresak ezagutza-oinarriak ditu eta berriztatzeko orduan planteatzen diren arazoak konpontzera bertara jotzen du. Bestela, kanpoko oinarrietara jo dezake. Abiapuntuko ezagutzekin arazoei ezin bazaie aurre egin, orduan, ikerketara jotzen da; hala, ezagutza-oinarria zabaltzeko aukera izango da.

Ildo horri jarraiki, «estrategia teknologikoaren» kontzeptua oso garrantzitsua da, jarduera berriztatzaileak konbinatuz en-

una empresa con la ayuda de diversas combinaciones de actividades innovadoras, adquiere una importancia central. Las estrategias son variadas: desarrollar productos enteramente nuevos; imitar a los líderes en materia de innovación; adaptar a las necesidades de la empresa tecnologías desarrolladas fuera de la misma; desarrollar progresivamente las técnicas existentes; o cambiar los métodos de producción de los productos existentes.

La innovación tecnológica es un producto (bien o servicio) nuevo o sensiblemente mejorado introducido en el mercado (innovación de producto), o la introducción, dentro del establecimiento, de un proceso nuevo o sensiblemente mejorado (innovación de proceso). La innovación tecnológica se basa en los resultados de nuevos desarrollos tecnológicos, nuevas combinaciones de tecnologías existentes, o en la utilización de otros conocimientos adquiridos por el establecimiento. Los simples cambios de organización o de gestión no se consideran innovaciones tecnológicas. La innovación debe ser nueva para el establecimiento. No es necesario que sea nueva para el mercado.

La innovación de producto es un bien o un servicio nuevo o sensiblemente mejorado con respecto a sus características básicas, especificaciones técnicas, software incorporado y otros componentes intangibles, finalidades deseadas o prestaciones. La innovación de proceso consiste en una tecnología de producción nueva o sensiblemente mejorada, así como en métodos nuevos o sensiblemente mejorados de suministro de servicios y de entrega de productos. El resultado debe ser significativo con respecto al nivel del volumen de producción, la calidad de los productos (bienes o servicios) o los costes de producción y distribución.

Las actividades para la innovación tecnológica son el conjunto de trabajos científicos, tecnológicos, organizativos, financieros y comerciales, incluyendo la inversión en nuevos conocimientos, que conducen o pretenden conducir a la realización de productos o procesos tecnológicamente nuevos o mejorados. La realización de I+D (interna o adquirida a otras empresas) puede ser una de dichas actividades pero, además, el establecimiento puede realizar otras actividades como adquisición de tecnologías materiales e inmateriales necesarias para realizar las innovaciones, formación del personal implicado en la innovación, adquisición de conocimiento externo a través de la compra de derechos de uso de patentes, licencias, *know-how* y marcas de fábrica, y otros preparativos técnicos para la implementación de la innovación.

En los años 90 emergió con considerable fuerza la perspectiva sistémica de la innovación, que resalta la multiplicidad de actores y tipos de relaciones en la innovación, así como los factores sociales (institucionales, organizacionales, culturales) que afectan a los procesos de generación y uso de innovaciones (Lundvall, 1992; Edquist, 1997). Dentro de esta perspectiva, la innovación es definida como la utilización, en la actividad económica, de nuevo conocimiento o nuevas combinaciones de conocimiento existente (Edquist, *ibid.*, p. 42). La innovación tiene un carácter múltiple: puede referirse tanto a productos como a procesos (tecnológica, organizativa), puede ser tanto radical como incremental, y puede referirse a distintos tipos de aprendizaje (aprender haciendo, aprender usando, aprender interactuando).

presak lortu nahi dituen merkataritza-helburuak finkatzen baitira. Estrategiak desberdinak dira: produktu erabat berriak garatzea, berriztapenaren alorrean buruei imitatzea, bertatik kanpo garatutako enpresa teknologikoen beharretara egokitzea, pixkanaka dauden teknikak garatzea, edo produktuen produkzio-metodoak aldatzea.

Berriztapen teknologikoa produktu (ondasun edo zerbitzu) berria edo nabarmenki hobetua da eta, gainera, bi aukeretakoa bat bete behar da: merkatuan sartzea (produktuaren berriztapena) edo prozesu berriaren edo nabarmenki hobetuan sartzea (prozesuaren berriztapena). Berriztapen teknologikoa honakoen emaitza izan daiteke: garapen teknologiko berriak, dauden teknologiekin konbinazio berriak edo establezimenduak bestelako ezagutzak erabiltzea. Ildo horri jarraiki, antolaketa- edo kudeaketa-aldaketak berriztapen teknologikoak dira. Dena den, berriztapenak establezimenduarentzat berria izan behar du. Ez du halabeharrez merkatuarentzat berria izan behar.

Produktuen berriztapena produktuaren oinarritzko ezaugarriekiko, berezitasun teknikoekiko, softwarearekiko eta bestelako osagai ukiezinekiko, helburuekiko edo prestazioekiko ondasun edo zerbitzu berria edo nabarmenki hobetua da. Prozesuaren berriztapena, berriz, produkzio-teknologia berria edo nabarmenki hobetua da. Halaber, prozesuaren berriztapenean zerbitzuen hornidura edo produktu berriak entregatzeko orduan, metodo berriak edo nabarmenki hobetuak erabiltzea sartzen da. Emaitzak produkzio-bolumenarekiko, produktuaren (ondasunaren edo zerbitzuaren) kalitatearekiko edo produkzio- eta banaketa-kostuekiko esangarria izan behar du.

Berriztapen teknologikorako jarduerak honako lanen multzoak dira: zientifikoak, teknologikoak, antolakuntzazkoak, finantzarioak eta merkataritza-koak, ezagutza berrietan egindako inbertsioa barne. Beren helburua teknologiaren ikuspegitik produktu edo prozesu berriak edo hobetuak lortzea da. I+G (barnekoa edo beste enpresetatik lortutakoa) horietako jarduera bat izan daiteke, baina, gainera, establezimenduak bestelako jarduerak egin ditzake, hala nola berriztapenak egiteko teknologia materialak eta ez-materialak erostea, berriztapenarekin zerikusia duten langileak trebatzea, patenteak, lizentziak, *know-how* eta fabrika-markak erabiltzeko eskubiak erostearen bidez kanpoko ezagutzak lortzea, baita berriztapena inplementatzeko bestelako prestaketa teknikoak ere.

90. hamarkadan berriztapenaren ikuspegi sistemikoa indarrez azaleratu zen. Horren arabera, berriztapenean aktoreen eta erlazio-moten aniztasuna, baita gizarte-faktoreak (erakundeak, antolaketa-koak, kulturalak) ere azpimarratzen dira, betiere berriztapenen sormenari eta erabilerari eragiten badiete (Lundvall, 1992; Edquist, 1997). Ikuspuntu horren barruan, berriztapena hurrengo moduan definitzen da: jarduera ekonomikoan ezagutza berriak edo ezagutzen konbinazio berriak erabiltzea (Edquist, *ibid.*, 42. or.). Berriztapenak izaera anizkoitza du: produktuak nahiz prozesuak (teknologikoak, antolamenduzkoak) aipa ditzake, errozkua nahiz gehitzekoa izan daiteke eta irakaskuntza-mota desberdinak (ikasi egiten, ikasi erabiltzen, ikasi elkar eragiten) kontuan har ditzake.

Según la perspectiva sistémica, las empresas (organizaciones formales) están situadas en entornos institucionales y culturales («instituciones») que afectan a los procesos de innovación. Por «instituciones» se entienden las normas, valores, leyes, rutinas y prácticas que guían la acción y las relaciones entre actores. Para hablar de un sistema de innovación se requieren dos condiciones. En primer lugar, la existencia de una diversidad de actores y factores relacionados con la innovación (empresas, organismos públicos y privados de I+D, políticas públicas, agentes financieros, agentes del entorno socioeconómico, sistema educativo, cultura productiva). En segundo lugar, es preciso que existan relaciones regulares y bidireccionales entre los distintos agentes.

El concepto de sistema de innovación se aplicó en primer lugar a los estados nacionales. Sin embargo, en el contexto actual de globalización y «capitalismo informacional» (Castells 1996), el nivel local y regional adquiere una creciente importancia económica (Braczyk et al. 1998). Las tecnologías de la información facilitan y multiplican las relaciones, pero no pueden sustituir al elemento de interacción social, comunicación y confianza (ligados a la proximidad espacial), necesario en los procesos de generación y transferencia de conocimiento (especialmente conocimiento tácito y conocimiento grupal u organizacional).

Ikuspegi sistemikoaren arabera, enpresak (erakunde formalak) erakundeen nahiz kultur inguruneetan («erakundeetan») kokatuta daude eta horiek berriztapenaren prozesuetan eragiten dute. «Erakundeak» honako hauek dira: aktoreen artean ekintza eta harremanak gidatzen dituzten arauak, balioak, legeak, ohiturak eta praktikak. Berriztapen-sistemari buruz hitz egiteko bi baldintza behar dira: lehenik eta behin, berriztapenarekin zerikusia duten aktoreak eta faktoreak anitzak izatea (enpresak, I+Gren erakunde publiko eta pribatuak, politika publikoak, eragile finantzarioak, ingurune sozioekonomikoko eragileak, hezkuntza-sistema, kultura produktiboa); eta, bigarrenez, eragile desberdinen artean erlazio erregularrak behar dira eta, gainera, bi norabideetan.

Berriztapen-sistemaren kontzeptua lehenik eta behin estatu nazionaletan aplikatu zen. Hala eta guztiz ere, egungo globalizazioaren eta «informazio-kapitalismoaren» testuinguruan (Castells 1996) geroz eta garrantzi ekonomiko handiago du tokiko edo eskualdeko mailak (Braczyk et al. 1998). Informazioaren teknologiek erlazioak erraztu eta biderkatzen dituzte, baina gizarte-elkarrekintzako, komunikazioko eta konfiantzako elementua ezin du ordezkatu, espazioan izandako hurbiltasunarekin zerikusia baitu eta ezinbestekoa baita ezagutzak sortu eta transferitzeko orduan, bereziki, ezagutza tazittoa eta taldeko edo erakundeeko ezagutza izanez gero.

2. PANORÁMICA GENERAL DEL SISTEMA

Las principales características del sistema de I+D de la C.A. de Euskadi son: la debilidad del sector público, la existencia de una fuerte estructura de transferencia tecnológica (los centros tecnológicos multisectoriales) y la orientación industrial. El nivel de gasto en I+D es importante (1,44% del PIB en 2004), superior a la media española (1,05%), pero por debajo de la europea (UE-25: 1,90%) (véase tabla 1). En los últimos años se ha doblado el personal de I+D, pero esto no debe hacernos olvidar la debilidad relativa de la cultura de investigación e innovación frente a países europeos más avanzados.

2. SISTEMAREN IKUSPEGI OROKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoan I+G sistemaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: sektore publikoaren ahultasuna, transferentzia teknologikoaren egitura sendoa (zentro teknologiko sektore anitzak) eta industri orientabidea. I+Gn gastua garrantzitsua da, 2004. urtean BPGren %1,44, hain zuzen ere. Hori Espainiako batez bestekoa (%1,05) baino handiagoa da, baina Europakoaren azpian (EE25: %1,90) dago (ikusi 1. taula). Azken urteetan I+Gn langileen kopurua bikoiztu egin da, baina ez dugu alde batera utzi behar ikerketa eta berriztapen-kulturaren ahultasuna, Europako herrialde aurreratuenen aldean.

Indicadores de recursos en I+D

1

Baliabide-adierazleak I+Gn

	1995	2000	2001	2002	2003	2004
Euskal AE / C.A. de Euskadi						
I+G gastua (euroak, milioikotan) / Gasto I+D (Mill. euros)	323	594	619	672	700	769
I+G gastua BPGren gainean (%) / Gasto I+D sobre PIB (%)	1,12	1,42	1,40	1,44	1,41	1,44
AOB langile guztiak / Personal total EDP	5.645	9.092	10.621	11.165	11.353	11.925
AOB langileak x 1.000 aktibo / Personal EDP x 1.000 activos	7,9	11,0	12,4	12,4	12,4	12,8
AOB ikertzaileak x 1.000 aktibo / Investigadores EDP x 1.000 activos	4,6	6,6	6,8	7,0	7,8	8,0
Espainia / España						
I+G gastua (euroak, milioikotan) / Gasto I+D (Mill. euros)	3.550	5.719	6.227	7.194	8.213	8.946
I+G gastua BPGren gainean (%) / Gasto I+D sobre PIB (%)	0,81	0,94	0,95	1,03	1,05	1,07
AOB langile guztiak / Personal total EDP	79.987	120.618	125.750	134.258	151.487	161.933
AOB langileak x 1.000 aktibo / Personal EDP x 1.000 activos	4,9	6,8	6,9	7,7	8,8	9,0
AOB ikertzaileak x 1.000 aktibo / Investigadores EDP x 1.000 activos	2,9	4,3	4,4	4,8	5,3	5,6
EB-25 / UE-25						
I+G gastua (euroak, milioikotan) / Gasto I+D (Mill. euros)	:	169.418	179.629	186.349	188.222	:
I+G gastua BPGren gainean (%) / Gasto I+D sobre PIB (%)	1,85	1,89	1,93	1,93	1,92	1,90
AOB langile guztiak / Personal total EDP	1.755.612	1.929.523	1.956.981	1.998.210	2.021.395	2.047.531
AOB langileak x 1.000 aktibo / Personal EDP x 1.000 activos	:	10,4	10,4	10,6	10,6	10,7
AOB ikertzaileak x 1.000 aktibo / Investigadores EDP x 1.000 activos	:	5,7	5,9	6,1	6,1	6,3

(:) Ez dago datu eskuragarririk / No hay dato disponible.

Iturriak / Fuentes: Eustat, INE, Eurostat.

El sector público (universidad y organismos públicos de investigación) es particularmente débil en la C.A. de Euskadi (véase tabla 2). Asimilamos el sector universidad al sector público debido a que la mayor parte de los fondos específicos de I+D del sector universidad se ejecutan en la universidad pública (UPV-EHU). Por otro lado, como se verá en el apartado tercero, la misión de la universidad (investigación básica) se realiza habitualmente con un gran nivel de apoyo público.

El gasto en I+D (en términos relativos al PIB) en el sector universidad se sitúa en el 0,25% (2004), muy por debajo de la media española (0,32%) y europea (0,41%), y apenas ha crecido en los últimos años. El sector de administración pública,

Sektore publikoa (unibertsitatea eta ikerketa-erakunde publikoak) bereziki ahula da Euskal Autonomia Erkidegoan (ikusi 2. taula). Unibertsitatearen sektorea eta sektore publikoa parekatu dira, unibertsitatearen sektorean I+Grako funts berezi gehienak unibertsitate publikoan (EHUn) gauzatzen baitira. Bestalde, hirugarren atalean ikusi ahal izango denez, unibertsitatearen zeregina (oinarriko ikerketa) ohiz laguntza publiko handiarekin egiten da.

Unibertsitatearen sektorean I+Gn (BPGrekin alderatuz) %0,25 gastatu da (2004). Hori Espainiako batez bestekoaren (%0,32) eta Europakoaren (%0,41) azpian dago, oso azpian, gainera, eta azken urte hauetan ia ez da hazi. Herri-adminis-

limitado a unos pocos centros de ciencias agrarias, energía y sanitario es muy reducido en Euskadi (0,04% del PIB) en comparación con el Estado (0,17%, debido al CSIC y los centros ministeriales) y Europa (UE-25: 0,24%). En conjunto, el sector público y universitario de la investigación en Euskadi supone el 0,29% del PIB, frente al 0,49% español y 0,65% europeo.

Una característica distintiva del sistema vasco es la existencia de una fuerte estructura de transferencia tecnológica privada sin ánimo de lucro: los centros tecnológicos multisectoriales pertenecientes a la asociación EITE, Euskal Ikertegi Teknologikoen Elkarte – Asociación Vasca de Centros de Investigación Tecnológica. El surgimiento y desarrollo de es-

trazioaren sektorean nekazaritzarako, energiarako eta osasunerako zientzi zentro gutxi batzuk daude Euskadin (BP-Gren %0,04), Estatuko (0,17 CSIC eta ministerio-zentroei esker) eta Europako (EB-25: %0,24) aldean. Guztira Euskadin ikerketaren sektore publikoa eta unibertsitarioa BP-Gren %0,29 da, Espainiakoaren %0,49ren eta Europakoaren %0,65en aldean.

Euskal sistemaren ezaugarri bereizgarria honakoa da: irabazi-asmorik gabe teknologia transferitzeko egitura sendoa dagoela: zentro teknologiko sektore anitzak. Horiek guztiak EITE (Euskal Ikertegi Teknologikoen Elkarte) erakundearen sartuta daude. Eusko Jaurlaritzak ahalegin handia egin du zentro hauek sortu eta garatzeko orduan. Finantziario publi-

Gasto I+D por origen de los fondos y sectores de ejecución (%)

2

I+Gko gastua funtsen jatorriaren eta gauzatze-sektoreen arabera (%)

	1995	2000	2001	2002	2003	2004
Euskal AE / C.A. de Euskadi						
Unibertsitateak gauzatutako I+G gastua / Gasto I+D ejecutado Universidad	20,7	17,1	17,3	18,0	17,8	17,7
Herri Administrazioak gauzatutako I+G gastua / Gasto I+D ejecutado Admón. Pública	3,3	2,4	2,8	3,0	3,1	3,2
ZTk gauzatutako I+G gastua / Gasto I+D ejecutado CTs	15,1	13,0	13,5	13,9	11,1	13,8
Enpresak gauzatutako I+G gastua / Gasto I+D ejecutado empresa	60,9	67,5	66,5	65,1	68,0	65,7
Unibertsitate-sektorearen I+G gastua BPGren gainean / Gasto I+D sector universidad sobre PIB	0,23	0,24	0,24	0,26	0,25	0,25
Herri Administrazioaren I+G gastua BPGren gainean / Gasto I+D sector Admón. Pública sobre PIB	0,04	0,03	0,04	0,04	0,04	0,04
ZTen I+G gastua BPGren gainean / Gasto I+D CTs sobre PIB	0,17	0,18	0,19	0,20	0,16	0,19
Enpresa-sektorearen I+G gastua BPGren gainean / Gasto I+D sector empresas sobre PIB	0,68	0,96	0,93	0,94	0,96	0,95
Herri Administrazioak finantzatutako I+G gastua / Gasto I+D financiado Admón. Pública	34,2	27,4	26,6	27,1	29,9	29,70
Enpresak finantzatutako I+G gastua / Gasto I+D financiado por la empresa	61,6	69,0	66,0	64,5	66,1	66,00
Espainia / España						
Unibertsitateak gauzatutako I+G gastua / Gasto I+D ejecutado Universidad	32,0	29,6	30,9	29,8	30,3	29,5
Herri Administrazioak gauzatutako I+G gastua / Gasto I+D ejecutado Admón. Pública	18,6	15,8	15,9	15,4	15,4	16,0
Enpresak gauzatutako I+G gastua / Gasto I+D ejecutado empresa	48,3	53,7	52,4	54,6	54,1	54,4
Unibertsitate-sektorearen I+G gastua BPGren gainean / Gasto I+D sector universidad sobre PIB	0,26	0,28	0,29	0,31	0,32	0,32
